

EZKIO-ITSASO / Liburuaren eguna dela eta, gaur ekintza bat antolatu da liburutegian

EZKIO-ITSASO. DV. Badira urteak Liburuaren Eguna ospatzeko asmotan ekintza desberdinak antolatzen direla Ezkio-Itsasoko liburutegitik eta Udalaren laguntzarekin. Oraingoan ezin zen desberdina izan eta naiz eta egun zehatza gau izan larunbata honetan ipuin kontalari baten bisita jasoko du herriak eguna hau ospatzeko.

Oraingoan ere Santa Lutzi Anduaga koktuta dagoen liburutegian aurrera eramango da saioa eta hau larunbatean goizeko 11etan izango da. aurtengo ipuin kontalaria Ixabel Agirresarobe izango dugu eta honek adin guztietako, haur eta nagusientzako ipuinak kontatuko ditu. Ixabel Agirresarobek, besteen artean, kutsidazu bidea, Ixabel filman amonarena egin zuen. Beraz, animatu zaitezte eta larunbatean goizeko 11etan liburutegira gerturatu!

Liburuaren Eguna

Zergatik eta noiztik ospatzen da liburuaren eguna? Badira 13 urte Liburuaren Eguna ospatzen dugula mundu osoan. Apirilaren 23an hiru idazle famatuen heriotza konmemoratzen da: Miguel de Cervantes y Saavedra espaniarra, William Shakespeare ingelesa eta Garcilaso de la Vega (el Inca) kronista, hauek guztiak 1616. urtean gertatutakoak.

Horrela, 1995.urtean Unesco-k apirilaren 23a Liburuaren Eguna izango zela onartu zuen.

Ikuskizuna

Urretxuko Udala, Lekaio K.E. eta Urretxuko Tabernariak-en esku Hordago Txikira! formatu txikiko ikuskizunak disfrutatzeko aukera izango dugu. Horrela, bihar gaueko 10etan Urretxuko Zona Zero tabernan Belen Azkarateren antzerkia egongo da. Sarrera doan.